

AGURAINGO INGURUNE BERDEAREN ETA PEDROKO HEZEGUNEAREN BERRESKURAPENA, GARBIKETA ETA ERREBALORIZAZIOA

Lekua:	Agurain (Araba)
Modalitatea:	Ondare naturalaren kontserbazioa
Helburua:	Aguraingo ingurune berdearen eta Pedroko Hezegunearen berreskurapena, garbiketa eta errebalorizazioa
Egunak:	Uztailaren 16tik 30era
Adina:	18 – 26 urte
Plaza-Kopurua:	20
Mota:	Estatukoa
Hizkuntza:	Gaztelania eta euskara

Arabako lurralde historikoan dagoen udalerria. Aguraingo Eskualdean dago. Entzia eta Iturrieta mendien artean dago. Pagadi ikusgarriak ditu, eta bost herri hartzen ditu barne; horien artean, Salvatierra/Agurain nabarmendu behar da, udalerriaren administrazio-hiriburua delako eta Erdi Aroko alde zahar harresitua duelako. Multzo historiko izendatu zuten 1975ean.



Alde zaharra hiru kale nagusitan banatuta dago: Zapatari kalea, Harategi kalea eta kale nagusia. Azken horretan daude interes artistiko handiena duten eraikinak; esate baterako, San Juan Bautista eta Andra Mari elizak. Bi elizetan, XVI. mendeko erretaulak daude. Era berean, datu interesgarri gisa aipatu behar da Donejakueko Bidea udalerritik igarotzen dela.

Informazio gehiago:

Aguraingo Udala: <http://agurain.eus/index.php/eu/>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Auzolandegi horren bidez, berriz ere balioa eman nahi zaio Pedroko hezeguneari eta Aguraingo udalerriko berdeguneei; esate baterako, Oriamendi parkeari, Galzarri, ibai eta errekei, Sotosi, Vargasi...

184.700 m²-ko azalera du, eta honako hauek hartzen ditu barne: eremu osoa inguratzen duen espezie autoktonoen inguru landatu zabala, lau ur-geruza (2 irlatxo ditu, perimetroko pasealeku erdipresentzial batez inguratuta), behaketa-gunea duen muinoa eta ibilgailuen aparkaleku txikia.



Jarduera hauek egingo dira:

- Eremu landatuen hutsarteak zenbatu. Hutsegiteak definitu eta puntuak zehaztu.
- Zuloak egin landareri ez dagoen alderdietan landatzeko.
- Egoera onean dauden landareen txorkoak garbitu.
- Egoera onean dauden landareak ureztatu.
- Hesia lehengoratu.
- Mailazoa jarri, fauna eta bisitariak kontaktuan egon ez daitezen.
- Putzuen hegala beheratu.
- Euskarriak jarri putzuen barnealdean.
- Behatzeko etxola lehengoratu.
- Aparkalekuaren ingurua lehengoratu.
- Hezeguneko barneko bideak lehengoratu.



ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak, bisita kulturalak hiri nagusietara eta Euskadiko kostaldera, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Besteak beste, irteerak Aratz eta Aitzkorri mendi-tontorretara, Mitxarro Interpretazio Zentrora (Aratz-Aitzkorriko parke naturalean), bisita gidatuak udaleko alde zaharrera eta Santa Maria elizara, paintball...

Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.

ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- | | |
|---|--------------------------------|
| ➤ Lo-zakua (ez dago izararik) | ➤ Kapela eguzkitarako |
| ➤ Burkoa (behar baduzu) | ➤ Eguzkitako krema |
| ➤ Garbitasun pertsonaleko artikuluak | ➤ Eguzkitako betaurrekoak |
| ➤ Dutzarako eta igerilekurako toallak | ➤ Bainujantzia |
| ➤ Berokiak eta euritako arropak | ➤ Txankletak |
| ➤ Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak | ➤ Motxila txikia txangoetarako |

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Parte-hartzaileek honako hauek eraman beharko dituzte auzolandegira:

- NAN edo atzerritza-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Lan-esparrua batez ere Pedroko hezegunea izango da. Hala ere, hainbat lan egingo dira Galzarren eta Oriamendin; hau da, Aguraingo erdiguneko kanpoaldean lehengoratutako berdeguneetan.

Ostatua: Parte-hartzaileak **Aguraingo Udaleko aterpetxean** hartuko dute ostatu. Galzar kalean dago, kirol- eta eskola-eremutik hurbil. 2 logela ditu, honako osagai hauekin: ohatzeak, sukalde-egongela, komunak eta dutxak.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegiaren lehen egunean, **Aguraingo Udaletxean, 18:00etan**, Zapatari kalean, 15.

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Agurainen \(Araba\) kokapen-map](#)

Vitoria-Gasteiztik

Autoz:

Errepide hauetatik ibiliko zara: N-104 errepide nazionaletik, A-1 autobidetik, Aguraingo herri-errepidetik eta, A-3100 autobidetik. (Ibilbidearen iraupena: 25 minutu)

Autobusez:

Enpresa: La Unión/La Burundesa. Tel.: Vitoria-Gasteiz: 945 26 46 26

Txarteldegia: Vitoria-Gasteizko autobus-geltokien 2 zenbakia

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).